

UDALBATZARI

AL AYUNTAMIENTO PLENO

PP taldearen Arau Proposamena, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza aldatzea dela eta.

Proposición Normativa del Grupo PP relativa a la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO).

Udaleko PP Taldeko bozeramaileek, 2017ko abuztuaren 10ean, ondoko Arau Proposamen hau aurkeztu zuen, Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantza dela eta:

La Portavoz del Grupo PP presentó con fecha 10 de agosto de 2017 la siguiente Proposición Normativa, relativa a la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO):

“Azken urteotan, zenbait zerga oinarri proposatu dituzte, orokorrak, eta Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga Arautzen duen Zerga Ordenantzaren Eranskinean jasoz joan dira. Horrek desadostasunak sortu ditu udal honetako Zerbitzu Juridikoekin. Egoera hori konpontzeko, Talde Popularrak proposatu du zama mota bakar bat ezartzea lizentzia behar duen zeinahi eraikin, instalazio edo obra egiteko. Horrek, dena dela, ez du luke galaraziko egun foru arauak xedatzen dituen hobariak aplikatzerik.

“En los últimos años se han propuesto diferentes tipos impositivos de carácter general que se han ido incluyendo al Anexo de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto Sobre Construcciones, Instalaciones Y Obras (ICIO), cuestión que ha sido motivo de desencuentro con los servicios jurídicos de este Ayuntamiento. Con la intención de poner fin a esta situación el Grupo Popular propone establecer un único de tipo de gravamen para la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la correspondiente licencia, sin perjuicio de aplicar las bonificaciones que a día de hoy contempla la Norma Foral.

Hori dela eta, honako **ARAU PROPOSAMEN** hau proposatzen dugu **ERAIKIN, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZARI** buruz.

Por todo ello, se propone la siguiente **PROPOSICIÓN NORMATIVA, sobre la ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS (ICIO) BONIFICACIONES**

Hau jartzten duen tokian:

Donde dice:

7. artikulua. Hobariak

Art. 7. Bonificaciones

Eraikuntza, instalazio edo obren gaineko kuotaren % 95eko hobaria izango dute, beroa edo argindarra ateratzeko eguzkiaren energiari baliatzen diren sistemak jartzeko aurrekontu zatiaren gainean, betiere aplikatu beharreko araudian ezarritako baino % 25 gehiago bada eta etxeko edo eraikineko ur beroaren erdia behintzat ateratzen badute handik. Eguzkiaren energia argindarra ateratzeko erabiltzen bada, indarrean diren legeetan jarritako baldintzak betez gero izango da hobaria (6.25 KW nominal, behintzat, izatea).

Gozarán de una bonificación de un 95% de la cuota, las construcciones, instalaciones u obras, sobre la parte del presupuesto que destinen a la incorporación de sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar, siempre y cuando superen al menos en un 25% lo establecido en la normativa de aplicación y satisfagan al menos un 50% de las necesidades de agua caliente sanitaria de la vivienda o inmueble. En el caso del aprovechamiento eléctrico de la energía solar, se aplicará la bonificación siempre y cuando se superen los requisitos establecidos en la legislación vigente con un mínimo de 6,25KW nominales.

Hobari hau aplikatzeko, zerbitzuan jartzeko baimena eta/edo mantentze kontratua ekarri behar dira, egiaztagiri gisa.

La aplicación de esta bonificación estará condicionada a la acreditación mediante el aporte de la correspondiente autorización de puesta en servicio y/o contrato de mantenimiento.

Beste hau proposatzen dugu:

Se propone:

7. artikulua. Hobariak

Art. 7. Bonificaciones

1. Hobaria izango dute:

1. Gozarán de una bonificación:

a) Kuotaren % 95eko hobaria izango dute gizarte, kultura, historia, arte edo enplegua sustatzearen aldetik interes bereziko edo udalaren mesederako jotzen dituzten

a) Del 95 por 100 de la cuota, de las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias



eraikuntza, instalazio eta lanek, halakotzat jotzea funtsatuta egonez gero. Udalbatzari dagokio izendapen hori, eta Udalbatzako kideek gehiengo arruntez erabakiko dute, subjektu pasiboak eskatu ondoren.

sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración. Corresponderá dicha declaración al Pleno de la Corporación y se acordará, previa solicitud del sujeto pasivo, por voto favorable de la mayoría simple de sus miembros.

b) Eraikuntza, instalazio edo obren gaineko kuotaren % 95eko hoberia izango dute, beroa edo argindarra ateratzeko eguzkiaren energiaren baliatzen diren sistemak jartzeko aurrekontu zatiaren gainean, betiere aplikatu beharreko araudian ezarritako baino % 25 gehiago bada eta etxeko edo eraikineko ur beroaren erdia behintzat ateratzen badute handik. Eguzkiaren energia argindarra ateratzeko erabiltzen bada, indarrean diren legeetan jarritako baldintzak betez gero izango da hoberia (6.25 KW nominal, behintzat, izatea).

b) Del 95% de la cuota, las construcciones, instalaciones u obras, sobre la parte del presupuesto que destinen a la incorporación de sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar, siempre y cuando superen al menos en un 25% lo establecido en la normativa de aplicación y satisfagan al menos un 50% de las necesidades de agua caliente sanitaria de la vivienda o inmueble. En el caso del aprovechamiento eléctrico de la energía solar, se aplicará la bonificación siempre y cuando se superen los requisitos establecidos en la legislación vigente con un mínimo de 6,25KW nominales.

Hobari hau aplikatzeko, zerbitzuan jartzeko baimena eta/edo mantentze kontratua ekarri behar dira, egiaztagiri gisa.

La aplicación de esta bonificación estará condicionada a la acreditación mediante el aporte de la correspondiente autorización de puesta en servicio y/o contrato de mantenimiento.

c) Kuotaren % 50eko hoberia izango dute azpiegituretarako inbertsio pribatuak sustatzeko planei loturiko eraikuntza, instalazio eta obrek.

c) Del 50 por 100 de la cuota, las construcciones, instalaciones u obras vinculadas a los planes de fomento de las inversiones privadas en infraestructuras.

d) % 50eko hoberia izango dute babes ofizialeko etxebizitzekin loturiko eraikuntza, instalazio edo obrek.

d) Del 50 por 100 de la cuota, las construcciones, instalaciones u obras referentes a las viviendas de protección pública.

e) Kuotaren % 90eko hoberia izango dute ezinduen irisgarritasuna eta bizigarritasuna errazteko egindako eraikuntza, instalazio edo obrek.

e) Del 90 por 100 de la cuota, las construcciones, instalaciones u obras que favorezcan las condiciones de acceso y habitabilidad de los discapacitados.

Hobari hori helburu horretarako bestetarako ez diren eraikuntza, instalazio eta obren kuota zatiarentzat bakarrik izango da. Hala, aurrekontuaren xehakapena aurkeztu behar du interesatuak, hobari hori izango luketen eraikuntza, instalazio eta obren kostua ondo zehaztuko duena.

Esta bonificación alcanzará exclusivamente a la parte de la cuota correspondiente a las construcciones, instalaciones y obras destinadas estrictamente a dicho fin, debiéndose aportar por el interesado un desglose del presupuesto, en el que se determine razonablemente el coste de las construcciones, instalaciones u obras amparadas por esta bonificación.

2. Aurreko 1. ataleko b letran xedaturiko hoberia ezarriko diote aurreko 1. ataleko a letran xedaturiko hoberia ezarri ondoren, halakorako biderik izanez gero, lortzen den kuotari.

2. La bonificación prevista en la letra b) del apartado 1 anterior se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, la bonificación a que se refiere la letra a) del apartado 1 anterior.

Aurreko 1. ataleko c letran xedaturiko hoberia ezarriko diote aurreko 1. ataleko a eta b letratan xedaturiko hoberiak ezarri ondoren, halakoetarako biderik izanez gero, lortzen den kuotari.

La bonificación prevista en la letra c) del apartado 1 anterior se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras a) y b) del apartado 1 anterior.

Aurreko 1. ataleko d letran xedaturiko hoberia ezarriko diote aurreko 1. ataleko a, b eta c letratan xedaturiko hoberiak ezarri ondoren, halakoetarako biderik izanez gero, lortzen den kuotari.

La bonificación prevista en la letra d) del apartado 1 anterior se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras a), b) y c) del apartado 1 anterior.

Aurreko 1. ataleko e letran xedaturiko hoberia ezarriko diote aurreko 1. ataleko a, b, c eta f letratan xedaturiko hoberiak ezarri ondoren, halakoetarako biderik izanez gero, lortzen den kuotari.

La bonificación prevista en la letra e) del apartado 1 anterior se aplicará a la cuota resultante de aplicar, en su caso, las bonificaciones a que se refieren las letras a), b), c) y d) del apartado 1 anterior.

Ogasun Batzordeak, 2017ko irailaren 13ko bilkuran, aurreko Arau proposamena, zuzenketarik gabe, aztertu du.

En sesión de 13 de septiembre de 2017, la Comisión de Hacienda ha dictaminado, sin enmiendas, la precedente Proposición Normativa.

Aurreko guztia dela eta, ERABAKI hauek onartzea proposatzen zaio Udalbatzari:

En base a cuanto antecede, se propone al Ayuntamiento Pleno que adopte los siguientes

ERABAKIAK:

ACUERDOS:



LEHENA: Onartzea Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko Zerga (EIOZ) arautzen duen Zerga Ordenantzaren 7. artikulua (hobariak) aldatzea, azalpen zatian adierazitakoaren arabera.

PRIMERO: Aprobar la modificación del artículo 7 (bonificaciones) de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras (ICIO), descrita en la parte expositiva.

BIGARRENA: 2018ko urtarrilaren 1az geroztik indarrean izango den erabaki hau 1989ko uztailearen 5eko 11/1.989 Foru Arauko (Gipuzkoako toki ogasunak arautzen dituen) 16. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera izapidetzea; hartara, behin-behineko erabakiak behin betikotzat hartuko dira, baldin erreklamaziorik aurkezten ez bada.

SEGUNDO: Tramitar este acuerdo a regir desde el 1 de enero del año 2018, conforme al procedimiento establecido en el art. 16 de la Norma Foral 11/1.989 de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, entendiendo que el mismo, de carácter provisional, deviene definitivo si no se presentan reclamaciones.

Donostia, 2017ko irailaren 14a

San Sebastián, 14 de septiembre de 2017

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIA
EL SECRETARIO GENERAL DE PLENO

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA